

RUBEN ZIGANDA, Geroa Bai

-Zuen erranetan baztandar gehiengoak Aroztegiako proiektuaren alde bozkatu zuen. Geroa Bai bozkatu zuenak Aroztegiako proiektua Baztango Udalaren gainera erabakitzea bozkatu al zuen? Nik behintzat programan ez nuen halakorik ikusi... Esker mila.

Hauteskunde kanpainan Aroztegia proiektuari buruz genuen iritzia zein den galdetu ziguten udal taldeoi, mahai inguruetan, prentsan egindako galdetegietan... Argi eta garbi, hiru taldek (UPN, GB eta Auzolanean) proiektua babesten genuela adierazi genuen. Hiru alderdi hauek jaso genuen botu kopurua, proiektuaren aurka agertu zirenek elkarrekin lortutako babes baina handiagoa izan zen.

Geroa Bai proiektua babesten zuela erran zuen, eta babesten dugula errandakoan, proiektuari egiten diogu erreferentzia, ez beraz tramitatzeko moduari, ez dugu UGPS/PSIS-ik aipatzen, ezta erreferendumik ere. UGPS/PSIS-a legala da eta horrela dago tramitatua eta onartua.

-Jakina da, Lekarozko Aroztegiako proiektua, hiru proiektutan zatituta dago. Nik etxebizitzaren iguruko zatiri buruz galdetu nahi diot Ruben Zigandari. Behin baino gehiagotan aditu diot erraten lana sortuko duela proiektuaren zati honek ere. Ze lan-postu aurreikusten dituzu, ze lan-postutaz ari zara eta zenbat?

Proiektuak ez ditu hiru zati, proiektu bakarra da, bost fasetan banatzen dena. Lehenbizikoa hotela+spa+golf zelaia+49 etxebizitzak. Lehendabiziko fasea gauzatu eta saltzen direnean, bigarren fasearekin hasita egonen litzateke, eta horrela bata bertzearen segidan, hirugarrena, laugarrena eta bostgarrena. Aurreko faseko etxebizitza guztiak saltzea baldintza izanen da, gehienez ere 15 urteko epean. Inbertsioa 26 milio eurokoa da. Lanpostu egonkorak sortuko dira hotelean, span, jatetxean, golf zelaian, golf eskolan, loregintza eskola... Horretaz gain, eraikuntza-lanak irauten duten 15 urte horietan, eraikuntza-sektorean ere eragin positiboa izan dezake proiektuak. Proiektu honek, duen garrantzia eta hedadura kontuan izanik, interesa pizten badu bertze proiektu batzuk ere sustatu ditzake Baztanen. Udalerri mailan ere, 5 milioi jasoko litzake udalak 15 urte horietan. Diru-kopuru hori, bertzeak bertze, formazioa eskaini eta lanpostuak sortzeko lagungarriak izan litezkeen bitartekoak bultzatzeko baliatu liteke. Loregintza eskolak berak ere, bete dezake funtzio hori.

-Udal hauteskundeak Aroztegiari buruzko plebiszito edo erreferendum baten gisara baloratzen dituzuela ikusita, eta behin eta berriz erraten zaigunean Aroztegiaren aldeko alderdiek bozka gehiago jaso zituztela, posizioa berresteko tresna egokia ez al litzateke herri kontsulta bat egitea? Aldeko bozkek gehiengoa badute, zergatik bozkatu zenuten Batzar Nagusian kontsultaren aurka? Zuen posizioa berretsiko luke kontsultaren emaitzak, ez al da horrela?

Proiektuak ia 10 urte daramatza ez atzera eta ez aurrera. EHBildu eta Ezkerra agintean egon diren azken lau urteetan, herri galdeketa egitea ukatu zen NaBaik 2011ko abuztuan proposamena egin zuenean. Herritarren parte-hartze prozesuan ere, UGPS/PSISa tramitatzeke baldintza, kontsulta egin zitekeen eta orduan ere ez zen egin. Orain guztia onartuta dagoenean eta erantzukizun legalak daudenean, gure ustez ez da egokia. Gainera proiektuak baztandarrak ordezkatzeko dituzten udal taldeen gehiengoaren babesak du.

Azkeneko Batzar Orokorrean, herri galdeketa aurkako botoa eman genuen, Nafarroako Gobernuak egindako txosten batek ohartarazten zuelako herri galdeketa egitea ez zela legezkoa izango. Zuhurtziaz jokatu eta ekintza ilegal batean parte-hartzea ekiditeko, aurkako botoa ematea nahiago izan genuen.

-Aroztegiako proiektua Udalez Gaindiko Plan Sektorial bezala tramitatu eta Udalari berea den konpetentzia kentzea zuzena iruditzen zaizu? Zergatik?

UGPS/PSISa proiektuak aurkezteko erreminta bat da, ente publiko eta pribatuen eskura dagoena. UPNren gobernuak, baita oraingo gobernuak ere, UGPS/PSISa ongi tramitatu dagoela ziurtatu dute, legearen barrenean egin dela. Baztanen bertze UGPS/PSIS batzuk gauzatu izan dira; Lekarozko kanpua, Elizondoko saihesbidea, bide berdea... Jabetza pribatu batean, sustatzaile batek proiektua aurkeztu eta legea betetzen badu, proiektu horren ebaluazioa udaleko teknikariek edo Nafarroako gobernuak egin, emaitza ez dela aldatuko uste dugu. Batzuek zein bertzeek, legea betetzea eskatzen dute. Bi gobernu desberdinek proiektua legezkoa dela erran izanak, proiektua are gehiago bermatzen du mesfidantzen aurrean.

-Zer da zuretzako garapen jasangarria? Garapen eredu honen aldekoa al zara? Aroztegiako proiektu urbanistikoa garapen jasangarri eredu baten barnean sar daitekeela uste duzu?

Ez gaude ados proiektua urbanistikoa dela erraten dutenekin, proiektu turistikoa da gure ustez. Garapen jasangarriarekin guztiz bat egiten duela pentsatzen dugu. Lanpostuak eta jardurak sortzeko arazoak dituen landa-eremu bati balioa emanen dion proiektua da. Bertako aberastasun kulturalari, paisaiari eta bertako herritarrei dagokion balioa emanen dio, horixe da proiektu honen muina, proiektua erakargarri egiten duena. Dударik gabe, Baztanen garapen eta jasangarritasunerako lagungarria izanen da, aukerak sortuz.

-Lekaroztarrek 2009. urtean lurren birkalifikazioaren kontra agertu ziren eta berdin, proiektu urbanistikoaren kontra agertu dira orduetik egin diren batzarreetan. Zein da Lekaroztarren, hau da, proiektu honen eragin zuzena jasango duten herritarren hitza ez errespetatzearen arazoia?

Lekarozko batzarreko emaitza errespetatzen dugu. Baita, Lekaroz eta Gartzainen udal-hauteskundeetan izandako emaitzak ere. Proiektuaren

aldeko alderdiek, kontrakoek baino babes handiagoa izan zuten bertan. Gisa berean, proiektuaren kontrako alderdiek, 2011n baino babes gutxiago izan zuten 2015eko udal hauteskundeetan. Era berean, Baztanen unibertsaltasuna positiboa dela uste dugu, elkartasunaren adierazle eta bailararen ikuspegi bateratua; erabakiak hartzeko garaian.

-Baztango herritarrak herri galdeketa bidez proiektuaren aurka agertuko balira, erabaki hau babestu eta defendatuko al zenuke?

Errespetatuko genuke. Hala ere, galdeketa baliozkoa izateko, udal hauteskundeetan baino parte-hartzea haundiagoa izan beharko litzateke, eta Aroztegiko egitasmoa babestu zuten indarrek jasotako babesa baino haundiagoa izan beharko lukete proiektuaren kontrakoak. Egitasmo hau gelditzeak nafarrengan nolako eragina izanen lukeen ere kontuan hartu beharko litzateke: Baztandik kanpo ere onura ekarriko lukeen proiektu bat zapuzteaz gain; horrelako erabaki batek Nafarroara eta Baztanera datozen inbertitzaileei juridikoki segurtasun-eza sortuko lieke; eta nafar guztiek eman beharreko kalte-ordain guztia. Dena dela ere, UGPS/PSISari dagokion legezketasunaren baitan tramitatu den proiektua izanda, galdeketa buruzko erabakia, ez dirudi Baztani dagokion eskumena denik.

-Nola justifikatzen duzu 340 biztanleko herri batean 238 etxebizitza eraikitzea, Baztanen 800 etxebizitza huts ditugunean?

Ez dugu 228 etxebizitza eraikitzea justifikatzen, baina ezta 800 etxebizitza huts horien jabeek etxeak saltzea derrigortzen ere. Ikusi beharko da zergatik ez diren berritzen edo zergatik ez dituzten saldu nahi. Aunitzetan, administrazioaren beraren oztopoz gainera, etxebizitza berri bat egitea zaharra moldatzea baino ekonomikoagoa da.

-Zergatik ez da hotela bakarrik egin nahi?

Hori ez dugu guk erabakitzen. Dena proiektu bakarrean aurkeztu da. Zati bat bertzearen osagarri da eta alderantziz. Proiektua ez dugu guk egin.

-Ioseba Morenari Arizkun 238 etxebizitza berri eraikitzea ongi idurituko al litzaioke?

Ez. 228 etxebizitza izanen dira, beti ere, borts faseak egiten badira eta Udalak hirigintza-aprobetxamentuaren %10 uztea onartzen badu. Partzelekin gelditzea erabakiko balu, gehienez 168 etxebizitza izanen lirateke, eta 228 etxebizitza eraikitzeko partzelak utziko balitu, 1.700.000 euro jasoko litzuzke. Zure galdera 'Arizkun Aroztegia proiektua egitearen alde egonen zinateke?' izanen balitz, nire erantzuna baietz izanen litzateke.

-Nola baloratzen duzu PSISaren ondorioz zenbait lekaroztarrei beren lur pribatuak eta baztandar guztiei gure herri lurrak kendu edo espropiatzea enpresa partikular baten proiektu urbanistikoa gauzatu ahal izateko?

Normaltasunez. Ez dugu ahortzi behar desjabetzeak eta desafektazioak aunitzetan izaten direla bailaran, bideak zabaltzen direnean, errepide eta pista berriak egitean, partikularrek Udalarari ematen dizkioten hirigintza-aprobetxamenduak...

Proiektu honetan ez dago desjabetzerik. 400.000 m²ko proiektuaren baitan, 140 m²ko desafektazioa egin zen, eta ez desjabetzea. Alegazioak aurkezteko epea ireki zen, eta ez zen izan. Inguruan lur-zatiak dituzten jabeek proiektuaren birpartzelazioan eta urbanizazioan parte hartuko dute, Baztango bertze hainbat partzeletan bezala, bere alde on eta kontrakoekin.

-Proiektu honek onurak bertzerik ez dituenez, eta lana ekarriko duenez, zenbat Aroztegia egiteko prest egonen zinatekete? Lurrak soberan ditu Baztanek herri bakoitzeko bana egiteko ezta?

Proiektu bakoitza aztertu beharko litzateke, honekin egin den bezala. Ez zaizkie proiektu berriei ateak itxi behar. Gauzak modu orekatuan egitea da egokiena.

-Zeintzuk dira Aroztegia proiektua egiteak dakartzan onurak eta kalteak?

Onurak: lana, denda eta zerbitzuetan jarduera, zuzenean ala zeharka eraginen dienen inbertsioa ondorio positiboekin, bidaiaria-agentzia aunitzetan Baztan lehentasunezko helmuga bihurtzea.

Kalteak: borts faseak egitekotan, eragin bisuala.

-Inguru horretan etxebizitza behar erreala zein den aztertu da? Etxeak egin ondotik, hutsik geratzeko arriskurik ez al dago?

Ez dago hutsik gelditzeko arriskurik, hain zuzen, faseka eginen direlako, eta fase batetik bertzera pasatzeko baldintzetako bat egin eta salduak izatea delako. Halakorik ez gertatzeko, nahiko lotua dago. Eta berriz errepikatuko dugu, 228 etxebizitzak ez dira denak batera eginen. Aitzitik, borts fasetan eginen dira eta era mailkatatuan.